



IZEN EMATEAK ASTEAZKENEAN IREKIKO DIRA!

2023. urteko uztailaren 7, 8 eta 9an ospatuko da ehunmilak proben 12. edizioa.

Asteazken honetan, **azaroaren 9an, arratsaldeko 17:00etan irekiko da izen ematea.**

Partehartzaile kopurua aurten igo egingo da eta proba bakoitzerako honakoak dira:

- ehunmilak → 550 partaide (bai banaka zein taldeka).
- g2h → 550 partaide.
- mmm → 350 partaide.

Izen emate prozesua ulertzeko bideoa: <https://youtu.be/OravP9dCrK8>

Izen emateak irekitzeaz daude eta **prozesu** hau nola egin behar den jakinarazteko **argibideak** azalduko ditugu jarraian:

ehunmilak Ultra-Trail

- **2022eko azaroaren 9an arratsaldeko 17:00etan** irekiko da izena emateko epea eta izen emate prozesua ohikoa edo zuzena da.
- **Rockthesport**-eko webgunean egin behar da izen ematea (<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/ehunmilak-2023>).
- **Bete** eskatutako **datuak eta ordainketa egin**. Jarraian izena emandako **ziurtagiria** iritsi behar zaizu jarri duzun **emailera** eta izen ematea ondo burutu bada honako link honetan agertu beharko da zure izena (<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/ehunmilak-2023/partehartzaile-zerrenda>).
- Gogoratu izen ematea guztiz ontzat emateko (dortsal zenbakia izateko) **mediku eta gaitasun txostena bidali** behar zaiola antolakuntzari **dagokion** izen emate **epearen barruan** (<https://www.ehunmilak.com/eu/mediku-agiria-bidali/>).

goierriko 2 haundiak eta marimurumendi maratoia

- **2022eko azaroaren 9an arratsaldeko 17:00etan** irekiko da izena emateko epea. Izen ematea pausatuagoa da.
- Izen ematea probaren arabera webgune hauetako baten bidez egin:
 - **Rockthesport**-eko webgunean:
 - g2h <https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/g2h-2023>
 - mmm <https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/mmm-2023>
- Horretarako, **bete** eskatutako **datuak** eta ziurtatu izen-emate prozesua guztiz bukatu duzula ("**itxaron-zerrendan amaitu**" botoia **sakatuz**). Izena emandako **ziurtagiria** iritsi behar zaizu jarri duzun **emailera**.
- Izen-emate ordenaren arabera **itxarote zerrenda bat osatuko da. Izena emandako** korrikalari **guztiak** joango dira **itxarote zerrendara**.



ehunmilak
Ultra-Trail®



g2haundiak
GOTERRI TRAIL



marimurumendi
KARATZEN

- Korrikalariak izena ematen duen momentuan **ezagutuko** du itzarote zerrenda horretan duen **postua**. Horretarako, esteka honetan sartu beharko da:
 - g2h
<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/g2h-2023/partehartzaile-zerrenda>
 - mmm
<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/mmm-2023/partehartzaile-zerrenda>
- **2022eko azaroaren 9ko arratsaldeko 18:00etan** itzarote-zerrendan dauden **lehen 540 (g2h) eta 340 (mmm) korrikalariak** izango dute izena-emandakoen zerrendara pasatzeko aukera. Horretarako, korrikalariak aplikazioan jarri duen emailera, email bidez, mezu bat bidaliko zaio **ordainketa** egiteko jarraitu beharreko pausoak eta sartu beharreko esteka adieraziz.
- Korrikalariak **72 orduko epea** izango du **ordainketa egiteko**. Behin hori eginda, izena emandakoen zerrendara pasako da. Epe horretan izen-ematea formalizatu ezean, lasterketako plaza galduko da.
- **Ordainketa egin** ondoren izena emandako **ziurtagiria** iritsi behar zaizu jarri duzun **emailera** eta izen ematea ondo burutu bada honako link honetan agertu beharko da zure izena:
 - g2h
<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/g2h-2023/partehartzaile-zerrenda>
 - mmm
<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/mmm-2023/partehartzaile-zerrenda>
- Gogoratu izen ematea guztiz ontzat emateko (dorsal zenbakia izateko) **mediku eta gaitasun txostena bidali** behar zaiola antolakuntzari **dagokion** izen emate **epearen barruan** (<https://www.ehunmilak.com/eu/mediku-agiria-bidali/>).
- Izena emandakoen zerrendan bajarik balego, itzarote-zerrendan dauden korrikalariak deituko zaie itzarote zerrendako ordenaren arabera.

Informazio gehiago: www.ehunmilak.com

Facebook: <https://www.facebook.com/EhunmilakUltratrailG2h>

Twitter: <https://twitter.com/ehunmilakg2>

Instagram: https://www.instagram.com/ehunmilak_ultratrail/

Harremanetarako: inskripzioak@ehunmilak.com / ehunmilakultratrail@gmail.com

Traola ofiziala: **#ehunmilak23**